

/2022 FORU AGINDUaren proiektua, aren (e)koa, Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariarena. Honen bidez, 195 eredu onesten da: "Hiruhileko aitopena: Ezarritako epean kreditu-erakundeei identifikazio fiskaleko zenbakia eman ez dieten titularren kontuak edo eragiketak".

Tributuei buruzko abenduaren 14ko 13/2000 Foru Lege Orokorraren hamargarren xedapen gehigarriak ezartzen duenez, pertsona fisiko eta juridiko guztiek eta foru lege horren 25. artikuluan aipatzen diren nortasunik gabeko entitateek identifikazio fiskaleko zenbakia izan behar dute tributu arloko edo eragineko harremanetarako.

Identifikazio fiskaleko zenbaki hori administrazioak emanen du, ofizioz edo interesdunak eskatuta.

Erregelamendu bidez arautuko da identifikazio zenbaki fiskal hori esleitu, baliogabetu eta ezeztatzeko prozedura, baita hura osatzeko modua eta zerga arlokoak diren edo arlo horretan eragina duten harremanetan erabiltzeko modua ere.

Ildo horretan, Identifikazio fiskaleko zenbakia eta horrekin lotutako zentsu jakin batzuk arautzen dituen otsailaren 22ko 8/2010 Foru Dekretuak zenbaki horren osaera eta erabiltzeko modua arautzeko legezko agindua betetzen du, bai eta zerga arlokoak diren edo arlo horretan eragina duten harremanetan erabiltzeko modua ere. Zehazki, 12. artikuluan kreditu-erakundeen eragiketen identifikazioa arautzen da, eta 3. apartatuan ezartzen da erakunde horiek Ekonomia eta Ogasun Departamentuari jakinarazi behar dizkiotela identifikazio fiskaleko zenbakia eman ez duten titularren kontu edo eragiketak, nahiz eta kontu edo eragiketa horiek ezereztu egin diren edo aipatutako zenbakia ezarritako epea igaro ondoren entregatu den, onesten diren euskarri magnetikoen ereduari, baldintzei eta diseinuari egokitutako aitopenaren bidez.

Bestalde, eredu informatiboari buruzko egungo araudian aurreikusita dago ordenagailuz zuzenean irakurtzeko moduko euskarriaren bidezko aurkezpena. Baina euskarri fisiko jakin batzuk zaharkituta daudenez, eta, gainera, aurkezpen presentziala ere egin behar denez, aurkezpen mota horren ordean, beste inprimaki bat eskaini nahi da beren gehiegizko bolumena dela-eta ohiko inprimakiaren bidez aurkeztu ezin diren aitopenetarako. Inprimaki berriak fitxategiak konprimatzeko aukera emanen die.

195 eredua ("Ezarritako epean kreditu-erakundeei identifikazio fiskaleko zenbakia eman ez dieten titularren kontu edo eragiketen hiruhileko aitordena") Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariaren otsailaren 4ko 34/2002 Foru Aginduaren bidez onartu zen. Onartu zenetik denbora luzea igaro denez, eta kendu egin denez ordenagailuz zuzenean irakurtzeko moduko euskarrian aurkeztu beharra, 195. eredua arautzen duen foru agindu hau onetsi behar da.

Tributuei buruzko abenduaren 14ko 13/2000 Foru Lege Orokorraren zazpigarren xedapen gehigarrian baimena ematen zaio zerga arloko eskumena duen departamentuko kontseilariari foru agindu bidez arautu dezan zergadunek eta foru lege horren 90. artikuluan aipatzen diren entitateek zein kasu eta baldintzatan aurkezten ahal dituzten baliabide elektroniko, informatiko eta telematikoen bitartez aitordena, jakinarazpenak, aitordena-likidazioak, autolikidazioak edo tributuen arloko araudiak eskatutako beste agiri guztiak.

Horrenbestez,

AGINTZEN DUT:

1. artikulua. 195 eredua onestea.

1. 195 eredua onesten da, "Ezarritako epean kreditu-erakundeei identifikazio fiskaleko zenbakia eman ez dieten titularren kontuen edo eragiketen hiruhileko aitordena" izenekoak.

2. artikulua. 195 eredua aurkeztera beharturik daudenak, eta auzeratu beharreko informazioaren edukia.

Nafarroako Foru Ogasunari 195 eredua aurkeztera behartuta daude Nafarroan kokatutako kreditu-erakundeak, zerga-administrazioari kontuak edo eragiketak jakinarazteko, baldin eta kontu edo eragiketa horien titularrek ez badute identifikazio fiskaleko zenbakia eman, nahiz eta kontu edo eragiketa horiek ezeztatu egin diren edo identifikazio fiskaleko zenbakia adierazitako epea igaro ondoren entregatu den.

3. artikulua. 195 eredua aurkezteko epea.

195 eredua hiruhileko natural bakoitzaren hurrengo hilabetearen barruan aurkeztu beharko da, eragindako kontu edo eragiketei dagokienez, hiruhileko horretan identifikazio fiskaleko zenbakia emateko epea amaitu bada.

Urte bakoitzeko laugarren hiruhilekoari dagokion aitorpena hurrengo urteko otsailaren 20ra arte aurkeztu ahalko da.

5. artikulua. 195 eredia aurkezteko modua.

195 eredia bide elektronikotik aurkeztuko da, Internet erabiliz, 6. eta 7. artikuluetan, hurrenez hurren, ezarritako baldintzak eta prozedura betez.

6. artikulua. 195 ereduaren aurkezpen elektronikoa (Internet bidez) egiteko baldintza orokorrak.

1. 195 ereduaren aurkezpen elektronikoa egiteko, baldintza hauek bete beharko dira:

a) Aitortzaileak identifikazio fiskaleko zenbakia eduki beharko du (IFZ).

b) Aitortzaileak eduki beharko du identifikazio, autentifikazio eta sinadura elektronikorako sistema bat, eta ziurtagiri elektroniko kalifikatu bat erabili, Nafarroako Foru Ogasunak onartzeko modukoa, arloan indarra duen legediarekin bat etorritik.

Ziurtapen zerbitzuen emaileak eta baimenduta dauden ziurtagiri elektronikoak Nafarroako Foru Ogasunaren webgunean daude zerrendaturik, Interneteko helbide honetan: <https://hacienda.navarra.es>.

c) Aurkezlea baldin bada hirugarrenen izenean aitorpenak aurkezteko baimena duen pertsona edo entitate bat, aurreko b) letran aipatzen den ziurtagiri elektroniko aitortua eduki beharko du, arau honekin bat: Aitorpenak hirugarren pertsonak ordezkatzuz bide telematikoetik aurkezteko kanpo-lankidetzarako akordioa onesten duen ekainaren 29ko 130/2009 Foru Agindua.

d) Zergapekoak pertsona fisikoak direnean, Cl@ve sistema erabiliz ere egin daiteke aurkezpena, zeina identifikazio, autentifikazio eta sinadura elektronikorako sistema baita, Estatuko Administrazio sektore publiko osorako, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioarako eta harekin bat egiten duten beste autonomia erkidego eta toki entitateetarako, araututa dagoena PRE/1838/2014 Aginduan. Hari esker, herritarrak harreman elektronikoa izan dezake zerbitzu publikoekin gako itunduen bidez, hartan erabiltzaile gisa izena eman ondoren.

Nafarroako Foru Ogasunak zehazten dituen kasuetan, gako itundu bidezko beste identifikazio sistema batzuk onar daitezke pertsona fisikoentzat.

e) Aitortzaileak edo, bidezkoa bada, aurkezle baimendunak, igorri beharreko aitorpena jasotzen duen fitxategia lortzeko laguntza-programa bat erabili beharko du aurretik. Laguntza-programa hori Nafarroako Foru Ogasunak 195 ereduaren aitorpenetarako prestatu duena edo formatu bereko fitxategi bat sortzen duen beste bat izan daiteke.

Fitxategi horien edukia I. eranskinean ezartzen diren erregistro-diseinuen arabera izanen da.

f) Aitortzaileek aurkezpen elektronikoko hori egiteko eskatzen diren arau teknikoak bete beharko dituzte. Arau horiek Nafarroako Foru Ogasunaren webgunean daude ikusgai, Interneteko <http://hacienda.navarra.es> helbidean.

2. Bat etorritz Nafarroako Zerga Ogasunaren esparruan bide elektroniko, informatiko eta telematikoen erabilera arautzen duen uztailaren 17ko 50/2006 Foru Dekretuaren 14.3 artikuluan xedatutakoarekin bat, aurreko apartatuan ezarritako identifikazio sistemak sinadurarako sistema gisa erabiliko dira.

<https://hacienda.navarra.es> helbidean edukiko da aurkezpen elektronikoa gaituta duten zerga-betebeharren zerrenda eguneratu bat, eta zehaztuko da aurkezpen modu hori zeinetan den gaituta dagoen bakarra.

3. Bide elektronikoa erabiliz igortzen diren aitorpenetan akats formalen bat atzematen denean, sistemak berak emanen dio horren berri aitortzaileari errore-mezuen bitartez, behar diren zuzenketak egin ditzan.

7. artikulua. 195 ereduaren Internet bidezko aurkezpen elektronikoa egiteko prozedura.

1. Aurkezpen elektronikoa Internet bidez egiteko, eredu informatiboen inprimaki osagarria erabiliz, prozedura hau erabiliko da:

1. Eredu informatiboen inprimaki osagarrian sartzeari Ogasunarekiko tramiteen zerbitzuaren bitartez, Nafarroako Atarian.

2. Egin beharreko aitorpenaren eredu hautatzea.

3. Igorri beharreko aitortena duen fitxategia eranstea.

2. Akatsik atzemanaz gero, inprimakiaren bidez emanen da horien berri, eta haiek zuzendu arte ezin izanen da aitortena aurkeztu. Aitortena zuzen bete ondoren, sistemak adieraziko du zer zenbaki esleitu zaion aitortinari, eta, orobat, inprimatzeko aukera eskainiko du, frogagiri gisa erabiltzeko.

Xedapen indargabetzaile bakarra. Arau-indargabetzea.

Indargabetzen da otsailaren 4ko 34/2002 Foru Agindua, Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariarena, zeinaren bidez onesten baitira eurotako hiruhileko aitortenen 195 eredua, ezarritako epean kreditu-entitateei identifikazio fiskaleko zenbakia eman ez dieten titularren kontu edo eragiketena alegia, hala nola aipatu 195 eta 199 ereduen diseinu fisiko eta logikoak (kreditu-entitateen eragiketen identifikazioko urteko aitortenerako eredua), ordenagailuz zuzenean irakurtzeko euskarrian aurkezteko.

Azken xedapen bakarra. Indarra hartzea.

Foru agindu honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.

Iruñean, (e)ko aren (e)(a)n

EKONOMIA ETA OGASUNeko KONTSEILARIA.

Elma Saiz Delgado

I. ERANSKINA

DISEINU LOGIKOAK 195 EREDUA TELEMATIKA BIDEZ AURKEZTEKO SORTZEN DIREN FITXATEGIETARAKO

A) Diseinu logikoak.

Erregistroen azalpena.

Aitortzaile bakoitzarentzat bi erregistro mota izanen dira, lehen idazgunearen arabera bereizten direnak, irizpide hauekin bat:

1. mota: Aitortzailearen erregistroa: Identifikazio datuak eta aitortenaren laburpena. 1. motako erregistroaren diseinua, atal hauetan beretan eta foru agindu honetako eranskinean ageri direnetatik.

2. mota: Hartzailearen erregistroa. 2. motako erregistroaren diseinua, atal hauetan beretan eta foru agindu honetako eranskinean ageri direnetatik.

Aurkezteko ordena erregistro motarena izanen da. 1. motako erregistro bakar bat egonen da, eta 2. motakoen kasuan, aitortenak zenbat hartzaile dituen, hainbat erregistro izanen dira.

Eremu alfazenbakizko eta alfabetiko guztiak ezkerretara lerrokaturik eta eskuinetara zuriunez beterik aurkeztuko dira, letra larrietan, karaktere berezirik eta bokal azentudunik gabe.

Hizkuntzaren karaktere berezietarako ISO-8859-1 kodifikazioa erabiliko da. Hala, "Ñ" letrak ASCII 209 (Hex.D1) balioa izanen du eta "Ç" letrak (c larri hautsia) ASCII 199 (Hex.C7) balioa.

Zenbakizko eremu guztiak eskuinetara lerrokaturik eta ezkerretara zeroz beterik agertuko dira, zeinurik gabe eta paketatu gabe.

Eremu guztiek izanen dute edukia, eremuaren azalpenean kontrakoa zehazten ez bada. Ez badute, zenbakizko eremuak zeroz beteko dira, eta alfazenbakizkoetan eta alfabetikoetan, berriz, zuriuneak utziko dira.

Aurkezpena multzoan egiten denean (aitortzaile edo konturako sarrera egitera behartutako bat baino gehiago fitxategi berean), euskarriaren lehen erregistro gisa zero motako erregistro bat aurkeztuko da, atal honetan jarraian azaltzen den zero motako erregistroaren diseinuari jarraikiz. Horretan sartuko dira aurkezpenaren erantzulea den pertsonaren edo entitatearen datuak, eta hala eginen da, nahiz eta pertsona edo entitate hori euskarrian aitortzaile moduan ere aurkeztu. Jarraian ipiniko dira lehen aitortzailearen datuak (1. motako erregistroa), eta, ondoren, hartzaileak (2. motakoa); gero, hurrengo aitortzailearen datuak eta, ondoren, hartzaileak; eta horrela hurrenez hurren.

Fitxategiko lehen erregistroak (0 mota, aurkezpen kolektiboak egiten direnean edo 1. mota, banaka aurkezten denean) 13 karaktereko eremua izanen du, 238. idazgunearen eta 250.aren artean, zigilu elektronikoa jartzeko. Nafarroako Foru Ogasunak, kasua bada, ematen dituen programa ofizialek soilik beteko dute. Bestelako edozein kasutan, zurienez beteko da.

195. MODELOA

A.- 1. ERREGISTRO MOTA

Aitortzailearen erregistroa

IDAZGUNEAK	MOTA	EREMUEN DESKRIPZIOA
1	Zenbakizkoa	ERREGISTRO MOTA. Konstantea: '1'
2-4	Zenbakizkoa	AITORPEN EREDUA. Konstantea: '195'.
5-8	Zenbakizkoa	EKITALDIA. Aitorpenari dagozkion zerga-ekitaldiaren lau zifrak
9-17	Alfazenbakizkoa	AITORTZAILEAREN IFZ. Aitortzailearen IFZ adieraziko da. Eremu hau eskuinaldean lerrokaturik egonen da, eta azken idazgunea kontrol karakterea izanen da, eta ezkerreko idazguneak zerez beteko dira, IFZ osatzeko eta erabiltzeko modua arautzen duen martxoaren 9ko 338/1990 Errege Dekretuan eta Identifikazio Fiskaleko Zenbakia arautzen duen uztailaren 31ko 182/1990 Foru Dekretuan ezarritako arauen arabera.
18-57	Alfazenbakizkoa	AITORTZAILEAREN SOZIETATE-IZENA. Sozietate-izena osorik adieraziko da, anagramarik gabe. Eremu honetan inola ere ez da izen komertzialik adieraziko.
58	Alfabetikoa	AURKEZPEN MOTA. Gako honekin beteko da: 'T': Transmisio telematikoa.

59-107	Alfazenbakizkoa	HARREMANETARAKO PERTSONA. Harremanetarako pertsonaren datuak. Eremu hau bitan banatzen da:	
		59-67	TELEFONOA: zenbakizko eremua, 9 idazgunekoa.
		68-107	IZEN-ABIZENAK: lehenbiziko deitura, zuriune bat, bigarren deitura, zuriune bat, eta izen osoa, hurrenkera horretantxe.
108-120	Zenbakizkoa	AITORPENAREN FROGAGIRIAREN ZENBAKIA. Aitorpenari dagokion frogagiriaren zenbakia jarriko da. Zenbakizko eremua, 13 idazgunekoa.	
121-122	Alfabetikoa	AITORPEN OSAGARRIA EDO ORDEZKOA. Aitorpen bat, salbuespenez, lehen aldiz aurkezten ez bada, eremu hauetako bat bete beharko da nahitaez:	
		121	AITORPEN OSAGARRIA: "C" bat jarriko da, aitorpen hau aurkeztearen helburua baldin bada ekitaldi eta aldi berean aurkezturiko beste aitorpen batean agertu behar zuten baina agertu ez ziren eragiketak adieraztea.
		122	ORDEZKO AITORPENA: "S" bat jarriko da baldin eta aurkezpenaren xedea bada ekitaldi eta aldi bereko aurreko aitorpen bat ezabatu eta osorik ordezte. Ordezko aitorpen batek aurreko aitorpen bakar bat baizik ez dezake balio gabetu.
123-135	Zenbakizkoa	AURREKO AITORPENAREN FROGAGIRIAREN ZENBAKIA. "Ordezko aitorpena" eremuan "S" idatzi bada, ordezten duen aitorpenari dagokion frogagiriaren zenbakia idatziko da. Zenbakizko eremua, 13 idazgunekoa. Beste edozein kasutan, zeroz beteko da.	
136 - 137	Alfazenbakizkoa	ALDIA. 2 idazguneko alfazenbakizkoa. Aitorpenari dagokion hiruhilekoaren gakoa, honako taula honen arabera: "1T" Lehenengo hiruhilekoa. "2T" Bigarren hiruhilekoa. "3T" Hirugarren hiruhilekoa. "4T" Laugarren hiruhilekoa.	
138-146	Zenbakizkoa	KONTU EDO ERAGIKETEN ERREGISTROEN GUZTIZKO KOPURUA. Aitortzaileari dagokion euskarrian ageri diren aitortuen erregistro guztien kopurua jarri beharko da. Kontu edo eragiketa bera erregistro batean baino gehiagotan agertzen bada, agertzen den adina aldiz kontatuko da (2. motako erregistroen kopurua).	
147-164	Zenbakizkoa	AITORTUTAKO KONTU EDO ERAGIKETEN SALDOEN EDO GEHIENENKO ZENBATEKOEN BATURA OSOA. Zenbakizko eremua, 18 idazgunekoa. Eremu hau bitan banatzen da:	
		147	ZEINUA: eremu alfabetiko hau "Aitortutako kontu edo eragiketen saldoen edo gehieneko zenbatekoen batura osoa" (1. motako erregistroko 148 idazgunetik 164 idazgunera) lortzeko emaitza 0 (zero) baino txikiagoa denean beteko da. Kasu horretan, "N" bat adieraziko da. Beste edozein kasutan, eremu honen edukia zuriune bat izanen da.
		148-164	ZENBATEKOA: zenbakizko eremua, 17 idazgunekoa. Aitortutaren erregistroei dagozkien "Saldoa edo gehieneko zenbatekoa" izeneko eremuetan (199 idazgunetik 212ra) adierazten diren diru-kopuruen batura koma dezimalik gabe idatziko da. Aitortuaren erregistroetan "N" jarri bada

			<p>"Saldoaren edo gehieneko zenbatekoaren zeinua" izeneko eremuan (2. motako erregistroko 198. idazgunea), aipatutako kopuru horiek minus zeinuarekin kontatuko dira, batura honetan adierazi behar diren zenbatekoen guztirakoa ateratzerakoan.</p> <p>Zenbatekoak EUROTan adierazi beharko dira.</p> <p>Eremu hau bitan banatzen da:</p>
		148-162	Saldoaren edo gehieneko zenbatekoaren osoko zatia; halakorik ez badu, zeroz beteko da.
		163-164	Saldoaren edo gehieneko zenbatekoaren dezimalen zatia; edukirik ez badu, zeroz beteko da.
165-250	-	ZURIUNEAK.	

- * Zenbateko guztiak positiboak izanen dira.
- * Edukirik ez duten zenbakizko eremuak zeroz beteko dira.
- * Edukirik ez duten alfazenbakizko eremuak eta eremu alfabetikoak zuriunez beteko dira.
- * Zenbakizko eremu guztiak eskuinaldean lerrokaturik eta ezkerraldean zeroz beterik.
- * Eremu alfazenbakizko eta alfabetiko guztiak ezkerraldean lerrokaturik eta eskuinaldean zuriuneak dituztela, letra larriz, karaktere berezirik eta azentudun bokalik gabe, non eta eremuaren azalpenean besterik agintzen ez den.

195 EREDUA

B.- 2. ERREGISTRO MOTA

Aitortuaren erregistroa

IDAZGUNEAK	MOTA	EREMUEN DESKRIPZIOA
1	Zenbakizkoa	ERREGISTRO MOTA. Konstantea: '2'
2-4	Zenbakizkoa	AITORPEN EREDUA. Konstantea: '195'.
5-8	Zenbakizkoa	EKITALDIA. 1. motako erregistroak idazgune hauexetan duen eduki berbera eman behar da.
9-17	Alfazenbakizkoa	AITORTZAILEAREN IFZ. 1. motako erregistroak idazgune hauexetan duen eduki berbera eman behar da.
18-26	Alfazenbakizkoa	AITORTZAILEAREN IFZ. Eremu hau beteko da aitortuak bere IFZ ezarritako epea iragan ondoren aurkeztu duenean. Pertsona fisikoa bada, aitortuaren IFZ jarriko da, Tributuak kudeatu eta ikuskatzeko eta tributuak aplikatzeko prozeduretarako arau komunak garatzeko jarduketa eta prozedurei buruzko Erregelamendu Orokorra onesten duen uztailaren 27ko 1065/2007 Errege Dekretuan eta Identifikazio fiskaleko zenbakia eta hari lotutako zenbait zentsu arautzen dituen otsailaren 22ko 8/2010 Foru Dekretuan ezartzen diren arauei jarraituz. Aitortua IFZrik ez duen adingabe edo ezgaitua bada eta haren legezko ordezkariak IFZ eman badu ezarritako epea igaro ondoren, eremu hau ez da beteko, baizik eta "Legezko ordezkariaren IFZ" eremua, eta bertan haren legezko ordezkariaren IFZ adieraziko da (aita, ama edo tutorearena). Aitortua pertsona juridikoa bada edo errentak eratzkitzeko araubidea duen entitate bat bada (ondasun-erkidegoa, sozietate zibila, jaraunspen jasogabea, etab.), haren identifikazio fiskaleko zenbakia adieraziko da. Eremu hau eskuinaldean lerrokaturik egonen da, eta azken idazgunea kontrol karakterea izanen da. Ezkerreko idazguneak zeroz beteko dira.
27-35	Alfazenbakizkoa	ORDEZKARIAREN IFZ. Aitortua adingabea edo ezgaitua bada eta IFZrik ez badu, eremu honetan haren legezko ordezkariaren IFZ idatziko da (aita, ama edo tutorearena), ezarritako epea igaro ondoren IFZ eman duenean. Beste edozein kasutan zuriuneak utziko dira eremu honen edukian. Eremu hau eskuinaldean lerrokaturik egonen da, eta azken idazgunea kontrol karakterea izanen da. Ezkerreko idazguneak zeroz beteko dira.
36-75	Alfazenbakizkoa	AITORTUAREN IZEN-ABIZENAK, SOZIETATE-IZENA EDO IZENA. Eremu honetan, ezarritako epea igaro ondoren IFZ eman ez duten kontuen edo eragiketen titularren izen-abizenak edo, hala badagokio, sozietate-izena edo izena adieraziko dira, kontu edo eragiketa horiek lehenago ezeztatu badira ere, edo adierazitako epea igaro ondoren entregatu bada ere. Hala ere, IFZri dagokionez, honako berezitasun hauek hartu beharko dira kontuan: a) Adingabeen edo ezgaituen izenean dauden kontuetan, haien IFZren ordez beren legezko ordezkariena eman daiteke.

		<p>b) Zenbait titularren izenean dauden kontuetan guztien IFZ eman behar da. Hala ere, kontu baten titularrak senar-emazteak bakarrik badira, bietako baten IFZ aski da.</p> <p>c) Atzerriarekiko trantsakzioei buruzko abenduaren 20ko 1816/1990 Errege Dekretuak ezarritakoaren arabera Espainian egoitzarik ez dutela frogatu duten pertsona fisiko edo entitateen izenean dauden kontuak identifikazio araubideaz kanpo gelditzen dira. Salbuespen hau ez da hedatzen etekinak titularraren Espainiako establezimendu bati ematen dizkion kontuetara.</p> <p>Pertsona fisikoa bada, lehen deitura, zuriune bat, bigarren deitura, zuriune bat eta izen osoa emanen dira, hurrenkera horretantxe nahitaez. Aitortua adingabea bada, haren izen-abizenak jarriko dira eremu honetan.</p> <p>Pertsona juridikoen eta errentak eratzikitzeko araubidea duten entitateen kasuan, entitatearen sozietate-izena edo izen osoa jarriko da, anagramarik gabe.</p>																																																																																																
76-115	Alfazenbakizkoa	<p>ORDEZKARIAREN IZEN-ABIZENAK, SOZIETATE-IZENA EDO IZENA.</p> <p>Kontu horiek adingabeen edo ezgaituen izenean badaude, eta haien legezko ordezkariak ez badu IFZ jakinarazi ezarritako epean, eremu hau betetzeaz gain, "Aitortuaren izen-abizenak, sozietate-izena edo izena" eremua ere bete beharko da (36-75 idazguneak), eta bertan adingabearen edo ezgaituaren datuak jasoko dira.</p> <p>Pertsona fisikoa bada, lehen deitura, zuriune bat, bigarren deitura, zuriune bat eta izen osoa emanen dira, hurrenkera horretantxe nahitaez.</p> <p>Pertsona juridikoen eta errentak eratzikitzeko araubidea duten entitateen kasuan, entitatearen sozietate-izena edo izen osoa jarriko da, anagramarik gabe.</p> <p>OHAR GARRANTZITSUA: aitortua IFZrik gabeko adingabe edo ezgaitua bada, haren legezko ordezkariak ez badu IFZ eman dagokion epean, legezko ordezkariaren helbideko datuak paratuko dira.</p>																																																																																																
116-117	Zenbakizkoa	<p>PROBINTZIAREN KODEA.</p> <p>Oro har, aitortuaren edo, hala badagokio, legezko ordezkariaren helbideko probintziari edo, hala bada, hiri autonomoari dagozkion bi digituak jasoko dira, zerrenda honen arabera:</p> <table border="1"> <tr><td>ARABA</td><td>01</td><td>LEÓN</td><td>24</td></tr> <tr><td>ALBACETE</td><td>02</td><td>LLEIDA</td><td>25</td></tr> <tr><td>ALACANT</td><td>03</td><td>LUGO</td><td>27</td></tr> <tr><td>ALMERÍA</td><td>04</td><td>MADRIL</td><td>28</td></tr> <tr><td>ASTURIAS</td><td>33</td><td>MÁLAGA</td><td>29</td></tr> <tr><td>ÁVILA</td><td>05</td><td>MELILLA</td><td>52</td></tr> <tr><td>BADAJOS</td><td>06</td><td>MURTZIA</td><td>30</td></tr> <tr><td>BARTZELONA</td><td>08</td><td>NAFARROA</td><td>31</td></tr> <tr><td>BURGOS</td><td>09</td><td>OURENSE</td><td>32</td></tr> <tr><td>CÁCERES</td><td>10</td><td>PALENTZIA</td><td>34</td></tr> <tr><td>CÁDIZ</td><td>11</td><td>LAS PALMAS</td><td>35</td></tr> <tr><td>KANTABRIA</td><td>39</td><td>PONTEVEDRA</td><td>36</td></tr> <tr><td>CASTELLÓ</td><td>12</td><td>ERRIOXA</td><td>26</td></tr> <tr><td>CEUTA</td><td>51</td><td>SALAMANCA</td><td>37</td></tr> <tr><td>CIUDAD REAL</td><td>13</td><td>S.C. TENERIFEKOA</td><td>38</td></tr> <tr><td>KORDOBA</td><td>14</td><td>SEGOVIA</td><td>40</td></tr> <tr><td>CORUÑA</td><td>15</td><td>SEVILLA</td><td>41</td></tr> <tr><td>CUENCA</td><td>16</td><td>SORIA</td><td>42</td></tr> <tr><td>GIRONA</td><td>17</td><td>TARRAGONA</td><td>43</td></tr> <tr><td>GRANADA</td><td>18</td><td>TERUEL</td><td>44</td></tr> <tr><td>GUADALAJARA</td><td>19</td><td>TOLEDO</td><td>45</td></tr> <tr><td>GIPUZKOA</td><td>20</td><td>VALENTZIA</td><td>46</td></tr> <tr><td>HUELVA</td><td>21</td><td>VALLADOLID</td><td>47</td></tr> <tr><td>HUESCA</td><td>22</td><td>BIZKAIA</td><td>48</td></tr> </table>	ARABA	01	LEÓN	24	ALBACETE	02	LLEIDA	25	ALACANT	03	LUGO	27	ALMERÍA	04	MADRIL	28	ASTURIAS	33	MÁLAGA	29	ÁVILA	05	MELILLA	52	BADAJOS	06	MURTZIA	30	BARTZELONA	08	NAFARROA	31	BURGOS	09	OURENSE	32	CÁCERES	10	PALENTZIA	34	CÁDIZ	11	LAS PALMAS	35	KANTABRIA	39	PONTEVEDRA	36	CASTELLÓ	12	ERRIOXA	26	CEUTA	51	SALAMANCA	37	CIUDAD REAL	13	S.C. TENERIFEKOA	38	KORDOBA	14	SEGOVIA	40	CORUÑA	15	SEVILLA	41	CUENCA	16	SORIA	42	GIRONA	17	TARRAGONA	43	GRANADA	18	TERUEL	44	GUADALAJARA	19	TOLEDO	45	GIPUZKOA	20	VALENTZIA	46	HUELVA	21	VALLADOLID	47	HUESCA	22	BIZKAIA	48
ARABA	01	LEÓN	24																																																																																															
ALBACETE	02	LLEIDA	25																																																																																															
ALACANT	03	LUGO	27																																																																																															
ALMERÍA	04	MADRIL	28																																																																																															
ASTURIAS	33	MÁLAGA	29																																																																																															
ÁVILA	05	MELILLA	52																																																																																															
BADAJOS	06	MURTZIA	30																																																																																															
BARTZELONA	08	NAFARROA	31																																																																																															
BURGOS	09	OURENSE	32																																																																																															
CÁCERES	10	PALENTZIA	34																																																																																															
CÁDIZ	11	LAS PALMAS	35																																																																																															
KANTABRIA	39	PONTEVEDRA	36																																																																																															
CASTELLÓ	12	ERRIOXA	26																																																																																															
CEUTA	51	SALAMANCA	37																																																																																															
CIUDAD REAL	13	S.C. TENERIFEKOA	38																																																																																															
KORDOBA	14	SEGOVIA	40																																																																																															
CORUÑA	15	SEVILLA	41																																																																																															
CUENCA	16	SORIA	42																																																																																															
GIRONA	17	TARRAGONA	43																																																																																															
GRANADA	18	TERUEL	44																																																																																															
GUADALAJARA	19	TOLEDO	45																																																																																															
GIPUZKOA	20	VALENTZIA	46																																																																																															
HUELVA	21	VALLADOLID	47																																																																																															
HUESCA	22	BIZKAIA	48																																																																																															

		BALEAR UHARTEAK	07	ZAMORA	49
		JAÉN	23	ZARAGOZA	50
		Espainiako lurraldean establezimendu iraunkor baten bidez jarduten ez duten ez-egoiliarren kasuan, 99 idatziko da.			
118-120	Zenbakizkoa	<p>HERRIALDEAREN KODEA.</p> <p>Espainiako lurraldean establezimendu iraunkor baten bidez jarduten ez duten ez-egoiliarren kasuan XXX idatziko da; XXX aitortuaren bizilekua dagoen herrialdearen kodea da, 196 eredu onesteko Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariak azaroaren 24an emandako 208/2008 Foru Aginduaren III. eranskinean azaltzen diren herrialdeen gakoekin bat.</p> <p>Espainiako lurraldean establezimendu iraunkor baten bidez jarduten duten egoiliar eta ez-egoiliarren kasuan, 118-120 idazguneak beteko dira.</p>			
121- 46	Alfazenbakizko a	<p>BIDE PUBLIKOAREN IZENA ETA ETXEAREN ZENBAKIA.</p> <p>Aitortuaren bizilekuko bide publikoaren izenaren aurretik, ahal dela, plaza, kalea, pasealekua edo antzeko bat idatziko da, eta, ahal dela, izen osoaren ordez, haren sigla jarriko dira 121-122 idazguneetan, honako gako hauen arabera:</p> <p>AL = zumardia, herrixka. AP = apartamentua. AV = etorbidea. BL = blokea. BO = auzoa. CH = txaleta. CL = kalea. CM = bidea. CO = kolonia. CR = errepidea. CS = baserria. CT = aldapa. ED = eraikina. GL = biribilgunea. GR = etxe-taldea. GV = galtzada nagusia. LU = alberria. ME = merkatua. MU = udalerrria. MZ = etxe-uhartea. PB = etxadia. PG = poligonoa. PJ = pasabidea. PQ = parkea. PZ = plaza. PR = luzapena. PS = pasealekua. RB = hiribidea. RD = ingurabidea. TR = zeharbidea. UR = urbanizazioa.</p> <p>Izena osorik sartzen ez bada, artikulua, preposizioak eta lokailuak kendu, eta tituluak laburtu behar dira (adibidez kd = kondea).</p> <p>Gainerako kasuetan, testua laburtzeko, sigla arruntak erabiliko dira.</p> <p>Halaber, etxearen zenbakia edo kilometro puntua jarriko da.</p>			
147-166	Alfazenbakizko a	<p>UDALERRIAREN IZENA.</p> <p>Udalerrriaren izenaren lehen 20 idazguneak adierazi behar dira.</p>			
167	Alfabetikoa	<p>AITORTUTAREN GAKOA.</p> <p>Gako hauetako bat emanen da:</p>			

		<p>Gakoa Deskripzioa.</p> <p>T Titularra.</p> <p>N Jabe soila.</p> <p>U Gozameduna.</p>				
168-170	Zenbakizkoa	<p>TITULARREN KOPURUA.</p> <p>Aitortutako kontu edo eragiketen titular edo parte-hartzaileen kopuru osoa, IFZ emana izan edo ez izan. Erregistro bat zenbatuko da ezarritako epean bere IFZ aurkeztu ez duten horietako bakoitzarengatik.</p>				
171-172	Zenbakizkoa	<p>KONTZEPTU-KODEA.</p> <p>Kode hauetako bat jarriko da:</p> <p>Gakoa Deskripzioa.</p> <p>01 Kontu korranteak.</p> <p>02 Aurrezki-kontuak.</p> <p>03 Eperako ezarpenak.</p> <p>04 Finantza-kontuak.</p> <p>05 Kreditu-kontuak.</p> <p>06 Etekin esplizitua duten aktibo finantzarioak.</p> <p>07 Etekin inplizitua duten aktibo finantzarioak, zor publikoa izan ezik.</p> <p>08 Etekin inplizitua duten aktibo finantzarioa:, zor publikoa.</p> <p>09 Bestelako eragiketak.</p>				
173	Alfabetikoa	<p>KODE MOTAREN GAKOA.</p> <p>Kontuaren identifikazioaren arabera, gako hauetako bat jarriko da:</p> <p>Gakoa Deskripzioa.</p> <p>C Kontuaren edo eragiketaren identifikazioa, Bezeroaren Kontu Kodearekin (CCC).</p> <p>V Eragiketaren identifikazioa Baloreen Kontu Kodearen bidez (CCV).</p> <p>O Bestelako identifikazioa.</p>				
174-177	Alfazenbakizkoa	<p>IBAN KODEAREN AURREZENBAKIA.</p> <p>Espainiako IBANaren (Banku Kontuaren Nazioarteko Kodea) lehen lau idazguneekin osatzen da azpikode hau.</p> <p>Eremu hau bitan banatzen da:</p> <table border="1"> <tr> <td>174-175</td> <td>HERRIALDEAREN ISO KODEA: ES balioa hartzen duen eremu alfabetikoa.</td> </tr> <tr> <td>176-177</td> <td>KONTROL DIGITUA.</td> </tr> </table> <p>Aitortzaileari banku igorleak ez badio eman entitate kodea edo eragiketa Baloreen Kontu Kode bati edo Bezeroen Kontu Kode bati ez bazaio egozten eta, ondorioz, IBANik ez bada, zuriunez beteko dira.</p>	174-175	HERRIALDEAREN ISO KODEA: ES balioa hartzen duen eremu alfabetikoa.	176-177	KONTROL DIGITUA.
174-175	HERRIALDEAREN ISO KODEA: ES balioa hartzen duen eremu alfabetikoa.					
176-177	KONTROL DIGITUA.					
178-197	Alfazenbakizkoa	<p>KONTUAREN EDO ERAGIKETAREN IDENTIFIKAZIOA.</p> <p>Honako hau adieraziko da:</p> <p>1.- Kontuatarako eta ezarpenetarako (kontzeptu-kodeak: 01etik 05era). Bezeroaren Kontu Kodea (CCC). Eremuaren egitura honelaxe osatzen da:</p>				

		<p>Idazguneak Deskripzioa.</p> <p>178-181 Erakundearen kodea.</p> <p>182-185 Bulegoaren kodea.</p> <p>186-187 Kontrol-digituak.</p> <p>188-197 Kontu-zenbakia.</p> <p>2.-Finantza-aktiboekin egindako eragitetarako edo bestelakoetarako (kontzeptu kodeak: 06tik 09ra). Baloreen Kontu Kodea (CCV) edo Bezeroaren Kontu Kodea (CCC). Eremuaren egitura honelaxe osatzen da: Idazguneak Deskripzioa.</p> <p>178-181 Erakundearen kodea.</p> <p>182-185 Bulegoaren kodea.</p> <p>186-187 Kontrol digituak.</p> <p>188-197 Kontu-zenbakia.</p> <p>3.-Aitortzaileari banku igorleak ez badio eman entitate kodea edo eragiketa Baloreen Kontu Kode bati edo Bezeroaren Kontu Kode bati ez bazaio egozten, entitateak barnerako emandako identifikazioa idatziko da.</p>	
198-212	Zenbakizkoa	SALDOA EDO GEHIENEKO ZENBATEKOA.	
		Eremu hau bitan banatzen da:	
		198	ZEINUA: eremu alfabetikoa. Kontuaren saldoa negatiboa bada "N" bat adieraziko da. Beste edozein kasutan, eremu honen edukia zuriune bat izanen da.
		199-212	<p>Zenbatekoa: zenbakizko eremua, 14 idazgunekoa.</p> <p>IFZ jakinarazteko epean lortutako saldoa edo gehieneko zenbatekoa adieraziko da, koma dezimalik gabe.</p> <p>Zenbatekoak EUROtan adierazi behar dira.</p> <p>Eremu hau bitan banatzen da:</p>
		199-2010	Saldoaren edo gehieneko zenbatekoaren osoko zatia; halakorik ez badu, zeroz beteko da.
		211-212	Saldoaren edo gehieneko zenbatekoaren dezimalen zatia; edukirik ez badu, zeroz beteko da.
		Halaber, eragiketari, kontuari edo gordailuari lotutako hainbat aitortu daudenean, haietako bakoitzean jarriko da egotz dakioken saldoa edo gehieneko zenbatekoa, bakoitzaren partaidetza portzentajearen arabera.	
213-250	-	ZURIUNEAK	

* Zenbateko guztiak positiboak izanen dira.

* Edukirik ez duten zenbakizko eremuak zeroz beteko dira.

* Edukirik ez duten alfazenbakizko eremuak eta eremu alfabetikoak zuriunez beteko dira.

* Zenbakizko eremu guztiak eskuinaldean lerrokaturik eta ezkerraldean zeroz beterik.

* Eremu alfazenbakizko eta alfabetiko guztiak ezkerraldean lerrokaturik eta eskuinaldean zuriuneak dituztela, letra larri, karaktere berezirik eta azentudun bokalik gabe, non eta eremuaren azalpenean besterik agintzen ez den.